

GOBIERNO DE NAVARRA

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,
INTERIOR Y JUSTICIARELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

DERECHOS SOCIALES

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL,
ADMINISTRACIÓN LOCAL Y MEDIO
AMBIENTE

Uztailean Nafarroan erregistratutako langabezia 581 pertsonatan jaitسي da; horrela, langabeen kopurua 42.330ekoa da

Zifra horrek, aurreko hilabetearekiko %1,35eko jaitسiera adierazten du eta 2014ko uztailekiko, berriz, langabezia 4.417 pertsonatan jaitسي da (%9,45, hain zuzen)

Martes, 04 de agosto de 2015

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko (NEZ) Enplegu Agentzian erregistratutako pertsona langabeen kopurua 42.330 pertsonakoa zen uztaile amaieran; horrek 581 pertsonatan jaitسي dela esan nahi du (%-1,35) aurreko hilabetearekiko, orduan, langabeen kopurua 42.911koa baitzen. 2014ko uztailekiko, berriz, erregistratutako langabezia 4.417 pertsonatan jaitسي da, alegia, %-9,45, balio errealetan.



Langabezia 581 pertsonatan jaitسي da

Nafarroako Enplegu Zerbitzutik, langabezia murriztea positiboa dela adierazten da, adierazle erlatiboak hobetuz baitoaz aurreko hilabetearekiko (ekaina), eta, baita, 2014ko aldi berdinarekiko ere.

Kontratazio-kopuru handiagoak NEZko bulegoetan inskribatutako langabeen kopurua murrizten jarraitzea ahalbidetzen du.

Horren iritziz, urtarokotasuna, nahiz eta uda-saso honetan ohikoa izan, kontuan hartu beharreko joera da; beraz, enpleguan egonkortasun handiagoa lortzeko ikuspegiarekin egin behar da lan.

NEZak iraupen mugatuko kontratuen iraupena pixkanaka luzatzen joatea eta ahal den neurrian kontratu finkoak gehitzen joatea beharrezkoa dela uste duela adierazi behar da.

Ildo horretatik, erakunde horrek uste du joera-aldaketa horrek pixkanaka kalitatezko enplegua lortzen joateko helburua izan behar duela. Horri dagokionez, adierazi behar da, lan-kontratu mugagabeak aurreko hilabetearekiko murriztu egin direla, 267 gutxiago dira.

Okupazio-taldean arabera, erregistratutako langabezia-tasa jaitسي egin da oinarrizko okupazioetan (-601 pertsona) eta gehitu teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualei dagokienez (596 pertsona).

Enplegu-agentzien arabera, erregistratutako langabezia-tasa jaitsi egin da guztietan: Agoitz (%-5,26), Tafalla (%-4,9), Tuteria (%-3,59), Lizarra (%-2,95), Altsasu (%-1,06), Arrotxapea (%-0,49), Zabalgunea (%-0,25), Doneztebe (%-0,2) eta Lodosa (%-0,13). Yamaguchiko agentzian soilik gehitu da (%0,66).

Jarduera ekonomikoen arabera, honako jardueratan erregistratutako langabezia-tasa jaitsi egin dela azpimarratu behar da: manufaktura-industrian (-176 pertsona), osasun-jarduera eta gizarte-zerbitzuetan (-161 pertsona), nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan (-133 pertsona), handizkako eta txikizkako merkataritzan (-117 pertsona) eta aurretik enplegurik ez zutenen artean (-115 pertsona). Igoera nabarmenenak, berriz, informazio eta komunikazioetan (22 pertsona) eta finantza-jardueratan eta aseguruetan (15 pertsona) erregistratu dira.

Sexuaren arabera, erregistratutako langabezia-tasa 3.714 emakumezotan, %-0,76ko jaitsierarekin, eta 18.616 gizonezotan izan da, %-2,1eko jaitsierarekin, aurreko hilabetearekiko.

Adinaren arabera, 25 urtetik beherakoen artean langabezia %-4,85 jaitsi da, 3.866 pertsonatan kokatuz eta, baita, 25 urtetik gorakoetan ere, zehazki, %-0,99, 38.464 pertsonetan kokatuz.

Kontratazioa

2015eko uztailean Nafarroako Enplegu Zerbitzuan erregistratutako kontratuen kopurua 33.559koa izan da; beraz, aurreko hilabetearekiko, 1.126 kontratu gehitu dira. Erregistratutako 33.559 kontratuetatik 1.190 kontratuk, izaera mugagabea zuten, alegia, erregistratutako kontratu guztien %3,55ak. 2014ko uztailarekiko, berriz, kontratuak %12,57 igo dira.

Sexuaren arabera, 17.392 gizonezko (ekainean baino 1.603 gizon gehiagok) eta 16.167 emakumezko (ekainean baino 477 emakume gutxiagok) kontratua izenpetu zuten. Adin-taldearen arabera, berriz, contratazioa honela banatu da: 7.432 kontratu 25 urtetik beherakoen artean erregistratu dira (aurreko hilean baino 1.210 gehiago), 18.573 25-44 urte bitartekoen artean (ekainean baino 111 baino gutxiago) eta 7.554 45 urtetik gorakoen artean (27 contratazio gehiago).

Jarduera-sektoreka, 21.919 zerbitzuen sektorean (ekainean baino 452 gehiago), 9.380 industrian (ekainean baino 362 gehiago), 1.318 nekazaritzan (ekainean baino 306 gehiago) eta 942 eraikuntzan (ekainean baino 6 gehiago).